

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa funtziona dezan, ezinbestekoa da lankide guztiak ondo prestatuak egotea haien lana betetzeko. Lan desberdinak egongo dira: hozkailuak egiten dutenak (ingeniariak eta mekanikoak), dirua antolatzen dutenak (kontableak), garraioaz arduratzen direnak (kamioi gidariak) eta azkenik, webgunea antolatzen eta eguneratzen arduratuko direnak (informatikoak).

Sortzen diren arazoak guk konponduko genituzke eta talde guztiari beti laguntzeko prest egongo ginateke. Hala ere, laguntza behar badugu kanpoko enpresen esku utziko genuke.

